

Emakumeak marka guztiak hausten

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Realeko futbol jokalaria bati egindako elkarrizketa duzu segidan. **Bideoa** ikusi aurretik, erantzun galderei:

- **Futbola gustatzen zaizu?**
- **Jokalari asko ezagutzen dituzu? Zerrendatu minutu batean okurrizten zaizkizun guztiak.**

Zerrendatu dituzun jokalaria horien guztien artean ba al dago emakumezkorik?



1- Bideoaren ulermena



Ikusi Ane Etxezarretari egindako elkarrizketa, irakurri osatu dugun laburpena eta kokatu hitzak dagokien lekuan:

ilusio / polita / zaletu / oihartzun / denboraldi / txapelketaren / errealistak / euforia

Erreginaren Kopa irabazi zutenean, ___1___ sentitu zuen Etxezarretak. Une hura ___2___ izan zen berarentzat, eta ordura arteko momentu on eta txarrez akordatu zen. Maiatzaren 11ren ondoren, komunikabideetan ___3___ handia lortu zuten eta, orain, pixka bat gutxiago bada ere, ___4___ aurretik baino gehiago agertzen dira hedabideetan. Gainera, ___5___ gehiago joaten dira beraiek ikustera. Agian maiatzean gehiago espero zuten, baina ___6___ dira, badakite zer bizi izan duten eta zer bizi ahal duten. Taldeak ___7___ handia du, eta ___8___ berriari begira, helburuak ligan iazko postua hobetzea eta Kopakoa berdintzea dira.

2- Testuaren ulermena

Irakurri Ane Etxezarreta Realeko jokalariaari egindako elkarrizketa eta erreparatu esapide hauei: **kontuan hartu / oihartzuna lortu / jauzia eman / ilusioa piztu/ prest egon**

Ane Etxezarreta, Realeko jokalaria: “Nire nahia soldata duina izatea da”

Ane Etxezarreta (Beasain, 1995) bere herriko taldean hasi zen futboleko jokatzeko eta, 2013. urtean, Oiartzungo taldera eman zuen jauzia: “Hasierako etapa hartan, ilusio izugarria neukan. Oiartzunen jokatu nuen bi urteetan heldutasunera iritsi nintzen, aurrerantz emandako urratsa izan zen hura niretzat”. 2015. urtean Realean hasi zen, eta orduetik kirolari gisa hazten jarraitu du. Gainera, 2018-2019 denboraldia ahaztezina izan da taldearentzat, Erreginaren Kopa irabazi baitute: “Ez dut hitzik egun hura eta ondorengoak deskribatzeko. Euforia sentitu nuen”. Zubietan berarekin elkartu gara entrenamendua amaitu duenean.

1. 2015ean Realean jokatzeko hasi zinen...

Bai, bigarren mailatik lehenengora igo nintzen eta, intentsitate eta jokatzeko abiaduran aldea nabaritu nuen. Agian ez da horrenbesteko jauzia gaur egun, baina lehen bai. Oso zorrotza zen fisikoki, baita mentalki ere. Fisikoki maila horretara heltzea kosta egiten da.

2. Erdilariaren postuan jokatu izan duzu gehien. Zer dohain behar ditu erdilari batek?

Azken urteetan zentrala ere izan naiz, eta ia zehazki ere dezente jokatu nuen. Hala ere, ni beti erdilaria izan naiz. Zer dohain? Garrantzitsua da defentsan lan egitea, zelai erdiko jokoa aurreikustea eta ahal den azkarren baloiak moztea.

3. Afizioaren berotasuna edo komunikabideen aitorza gero eta handiagoak izan arren, gizonezko futbolariaren eta emakumezko futbolariaren arteko aldeak handia izaten jarraitzen du. Hori noizbait parekatuko dela uste duzu?

Gizonezkoek kobratzen dutena kobratzea nik uste ez dela posible. Hasteko, guk igo ahal izateko, beraiek jaitsi egin beharko lukete... Horretan ez naiz sartuko. Niri ez litzaidake euren soldatara heltzea gustatuko;

nire nahia soldata duina izatea da. Azken batean gure lana da, eta langile guztiek eduki beharreko baldintza egokiak eduki behar ditugu, egoera duina, hain zuzen ere.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasuna murriztu daiteke? Bai, balio duguna guri emanda lor daiteke. Ez gara iritsiko gizonezkoek kobratzen dutena kobratzera eta ez nuke horretara iritsi nahiko. Nik uste ez dela ona mutilentzat eta guretzat ere ez litzatekeela ona izango.

4. Emakume asko kirolari profesionalak dira eta, horrez gain, beste lanbide bat izan behar dute bizi ahal izateko. Hori inoiz amaituko da?

Bukatzea gustatuko litzaidake, eta honezkero bukatuta egon beharko luke; izan ere, gure egunerokotasuna futbolari eskaintzen diogu. Gaur egun, futbolarekin oso zaila da beste



lanbide bat mantentzea, nahiz eta beharrezkoa izan bizi ahal izateko. Goizero entrenatzen dugu, eta batzuetan arratsalde ere bai. Beraz, ordutegi horretara egokitzen den lan bat bilatzen saiatzen gara ala ikasten... Ematen ari garen urratsei esker, nik uste kontuan hartu beharrekoa dela bide txiki bat egiten ari garela.

Nik uste merezi dugula lortu dugunagatik, erakusten dugunagatik, daukagun profesionaltasunagatik... Egoera hobetu daitekeela, alegia. Nik, adibidez, IVEF (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak) ikasi nuen Gasteizen, eta hori bukatu nuenean, Realarekin arratsalde entrenatzen genuenez, goizez ingelesa ikastera joaten nintzen. Iaz, Murumendi ikastetxeko errefortzu-gelan ematen nituen eskolak, baina aurten ezin izango dut, goizeko entrenamendutik korrika joan beharko nukeelako eta ez delako bideragarria. Oraindik ez dakit zer egingo dudan.

5. Zer esango zenioke futbolari izan nahi duen neska txiki bati?

Bere ametsa honaino iristea baldin bada, nik beti esaten dut lan asko egiteko, inoiz etsi gabe. Lana eginda, lehenago edo beranduago, iritsiko da. Saiatua izan beharko du, diziplinaz lan egin eta gauza batzuk alde batera utzi. Sakrifizio hori egiteko prest egon behar da, eta ilusioa, hori ez da inoiz galdu behar.



6. Zenbat jende joaten da zuen partidak ikustera?

Anoetan jokatu genituen bi partida horien ondoren, zorionez, jende asko geureganatu genuen eta, Zubietaraino etortzea zaila bada ere (garraio aldetik erraztasunik ez dagoelako), jendea etortzen da Realaren aldeko ilusio hori baduelako eta Zubietako Z7 zelaiko harmaila ia-ia bete egiten da. Erreginaren Kopa irabazi eta gero, lagunartekoetara jende gehiago etortzen

hasi da, sinadurak eta argazkiak eskatzera lehen baino zaletu gehiago hurbiltzen dira... Batez ere, ilusio handia piztu dugu umeengan.

7. Gainerako kirolean zuen antzeko errealitatea dute?

Kontua da futbola "lehenengo kirola" dela, gure gizartean jarraitzaile gehien dituen. Zentzu horretan, oihartzun handiagoa dugu beste edozein kirol egiten dutenek baino eta hori, beste kirolekin alderatuta, abantaila bat da. Nik uste dut gizartea pixkanaka aldatzen ari dela. Oraindik oso atzeratuta gaude, baina aurrera goaz. Nik ez dakit zein den beste kirolean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasuna, baina argi dago futboleko ikusi egiten dela desberdintasuna izugarria dela. Guk arian beste kirol batzuetan baino indar handiagoa egin dezakegu eta ea gure atzetik besteak bultzatzea ere lortzen dugun.



Jarraian Amanda Sampedro Atletico Madrileko jokalariaen biografia laburra irakurriko duzu. Osatu hutsuneak elkarrizketako egiturak erabilita.

kontuan hartu beharreko / oihartzun handiagoa lortzen ari da / eman zuen jautzia / ilusioa handia piztu du / prest egotea

Amanda Sampedro (Madril, 1993) Atletico Madrileko erdilaria da, eta lehenengo mailara 2008. urtean ____1____. Sampedrok Madrileko taldearekin ____2____ zaletuengan; izan ere, hiru liga eta Erreginaren Kopa irabazi ditu kamiseta zuri-gorria jantzita. Horri esker, jende asko eurenganatu dute, eta hori argi eta garbi ikusten da euren partidetako harmailetan biltzen den jende-kopuruan. Sampedrori buruz ____3____ hainbat gauza esan dituzte: jokalaria sortzailea dela, teknika indibiduala duela eta jokoa bereizten dakiela. Zaletuek gustuko dute taldean jokatzeko ____4____ eta, taldeak lortutako garaipenei esker, komunikabideetan lehen baino ____5____ emakumezkoen futbola.

3- Mintzamina

Taldeka komentatzeko:

1- Ane Etxezarreta Realeko jokalariaren entrenatzailea Gonzalo Arkonada da. Bestalde, Arraunean, Donostiako Kontxako estropadan, Izara Lestayok ezin izan da gizonezkoen Getariako ontziko patroiz izan, arautegiak ez duelako talde mistoen parte-hartzea onartzen.

Zer iruditzen zaizkizu bi egoera horiek? Emakumezkoen taldea gizonezkoak entrenatzea edo Kontxako Banderan gertatutakoa, zer duzu horiei buruz esateko?



2- Kirolean nabarmendu diren zein emakume ezagutzen dituzu?

3- Zuen ustez, ba al dago emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako kirol egokiagorik?

4- Ezagutzen al duzu, ustez, emakumezkoen kirolean aritzen den gizonik?

4- Entzundakoaren laburpena

Azken urteotan emakumeek kirol-arloan duten protagonismoak gora egin du nabarmen. Gero eta emakume kirolari gehiago daude eta gero eta ikusle gehiago joaten dira horiek jokatuak partidak ikustera. Emakumeak kirolean lortzen ari diren emaitzei buruzko **audio** bat entzungo duzu. Entzundakoan aukeratu laburpenik egokiena:

- A - Kirol askotan emakumeen presentzia areagotu den arren, txirrindularitzan ez du horrenbeste egin aurrera, Joane Somarriba bezalako txirrindulari onik sortu ez delako.
- B - Ez dago zalantzarik emakume kirolarien kopuruak gora egin duela nabarmen, baina oraindik badago zer hobetua.
- C - B. Muruaga erabat etsita dago, kirolean gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna zein makal doan ikusita.

5- Testua osatu

Segidan duzu Begoña Muruagaren **testua**. Bertatik zenbait hitz kendu ditugu: testu-antolatzaileak, batez ere, eta lexikoa. Osatu testua, kendutako hitz horiei dagokien ordena-zenbakia jarriz: **aldibidez / aipatu nahi nuke / alde handia dago / arrauna ere / bestalde / bultzada ematea / horren ondorioz / hala ere / hau da**

Emakumeak eta kirola

BEGOÑA MURUAGA. Maiatzaren 5ean, Gasteizen, 9 urtetik 16 urtera bitarteko neskek aukera izango dute futboleko, pilotan, saskibaloian edo eskubaloian jokatzeko. Lehiaketa horien helburua emakumeen kirolari **(1)** da.

Pozgarria da azken boladan emakume kirolariek ikusten ari garena; izugarria da hainbeste emakume ikustea orain arte gizonezkoenak ziren kirolean. Futboleko, **(2)**, aurten marka guztiak hautsi dituzte emakumeek. Madrileko Wanda Metropolitano zelaian 60.000 pertsona baino gehiago bildu ziren partida bat ikusteko; eta San Mamesen, 48.000 baino gehiago elkartu ziren. **(3)** goraka doan kirola da; **(4)**, joan den urtean Emakumeen Traineruen Elkarteak sortu zen; bertan, 14 arraun-klubek hartzen dute parte. Antzeko zerbaitez gertatzen da pilotarekin ere: emakumeak poliki-poliki bere lekua hartzen ari dira kirol horretan. Hala ere, oraindik **(5)** emakume-taldeen eta gizon-taldeen artean antolakuntzari dagokionez, hedabideetan ematen zaien tratamenduari dagokionez eta laguntzei dagokienez.

Emakumeak eta kirolari buruz ari naizen honetan, niretzat erreferentzia ezinbestekoa izan den emakume bat **(6)** : Joane Somarriba txirrindularia. Somarribak maila gorena lortu du bere kirolean: 3 aldiz irabazi zuen Frantziako Tourra, 3 aldiz Emakumeen Bira eta 2 aldiz Italiako Giroa. **(7)**, Atlantako Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketan eta beste zenbaitetan ere hartu zuen parte, han eta hemen sariak eta dominak irabaziz.

Joane Somarribari esker jakin nuen nik Frantzian Emakumeen Tourra zegoela eta Italian Emakumeen Giroa. Gauzak horrela, eta emakumeen txirrindularitzak zeukan bilakaera ikusita, ni konbentziturata nengoen garai 2 hartan, **(8)**, 90eko hamarkadan, aurki ikusiko genituela emakumeak Espainiako Itzulian eta Euskal Herriko Itzulian. Ez da gertatu horrela.

Hor dago emakumeen gogoia eta grina, emakume kirolarien aldeko zaletuen jarrera ere garbia da; **(9)**, oraindik bide luzea geratzen zaigu berdintasunerako.

1- Bideoaren ulermena

1. euforia
2. polita
3. oihartzun
4. txapelketaren
5. zaletu
6. errealistak
7. ilusio
8. denboraldi

2- Testuaren ulermena

1. eman zuen jauzia
2. ilusio handia piztu du
3. kontuan hartu beharreko
- 4- prest egotea
- 5- oihartzun handiagoa lortzen ari da

4- Entzundakoaren laburpena

Ez dago zalantzarik emakume kirolarien kopuruak gora egin duela nabarmen, baina oraindik badago zer hobetua.

5- Testua osatu

- | | |
|----------------------|---------------------|
| adibidez (2) | Bestalde (7) |
| aipatu nahi nuke (6) | bultzada ematea (1) |
| alde handia dago (5) | horren ondorioz (4) |
| arrauna ere (3) | hala ere (9) |
| | hau da (8) |

6- Gutuna idatzi herri-aldizkarian

- *Sarrera. Datu edo informazio berri batekin hasi*
- *Gertakari horrek sortzen diion sentimendua eta, horrekin batera, gizartean gertatzen diren aldaketak.*
- *Bere erreferentziako pertsonaia nor den eta arlo horretan gertatutakoa kontatzea.*
- *Ondorioa*